

Elkarlanean ikasi

Lew Barnett

Elkarlanezko ikaskuntza hizkuntz klasean nola txertatu eta ikasle-irakasleengan nolako ondorioak izan ditzakeen aztertzen du artikulu honek. Ikasgelako lanerako iradokizun batzuk ere ematen ditu eta elkarlanezko ikaskuntza taldean lan egiteko modu tradizional batzuekin konparatzen du.

Kontzeptua

Metodo jakin bati jarraiki ematen diren ikasaio askotan aurkitzen den arazo bakarra ez da ikasle guztientzat balioko duen metodo bakarrik ez egotea; funtsezko arazoa da edozein metodok, lehia dagoenean, ikasle batzuk bide akademikoen bazterrean utziko dituela.

Zalantzarik gabe, ikasgelarik gehienetan, ikaskuntzako giro jakin batek ikasle batzuei lagundu egiten die, beste batzuen bizkarretik lagundu ere. Betiko ikasaio lehiakorretako giroa ikasleak elkarren kontra aritzekoa izaten da, nota hobeak eta, ondorioz, ezagutzak nork lortuko. Giro horretan, “onenak eta azkarrenak” gailurrera iristen dira, askotan “makalak” izeneko ikasleen bizkarretik, ezinbestekoa baita hauen porrota haiek arrakastarik izango baldin badute. Horrelako egoera lehiakorretan, ikasleen arteko elkarerreragina “interdependentzia negatibozkoa” izan ohi da” (Kagan, 1989).

Irakaskuntza bakoiztuak, autoikaskuntzak, esaterako, ikaskideen aurre-rapenei erreparatu gabe aurrera egiteko aukera ematen dio ikasleari; zenbaitek “interdependentzia neutroa” esan ohi dio egoera horri.

Hirugarren alternatiba bat elkarlanezko ikaskuntza da. Ikasleei taldeka lan eragiten zaie, ikasgelan oinarritzko unitatea taldea delarik. Elkarrekin lan egiten irakasten zaie ikasleei, edozein jardunetan, edo ikastaro osoan ere, beren abildadeak erabiliz arrakasta lor dezaten, taldeek, jakina. Honi “interdependentzia positiboa” deritzo.

Sarrera

Estatu Batuetan zabaldu da azken hamabost edo hogeitaz urteotan elkarlanezko ikaskuntza, bigarren hezkuntzan batik bat, eta disziplina akademiko guztietan erabili izan da ez da inolaz ere hizkuntza irakasteko metodo bat; egiatan, ez zen hizkuntz klasea metodo hau usuen erabiltzen zen arloa. Elkarlanean ikasteko bultzadaren zioa ikastalde arrazantzeko edo polietnikoetan harremanak hobetu nahia zen; horrelakoetan indar handia izaten baitute afektibitateak eta, zenbaitetan, elkarren arteko etsaigoak. Frogatua dago harremanak hobetzearekin emaitza akade-

mikoak ere hobetu egiten direla. Egia esan, elkarlanezko ikaskuntza ezartzeko sortzen den oztopo serio bat zera izaten da: irakasleek metodo sozial bezala ikusten dutela, ikasgelan adiskidetasun-giroa lortzearen maila edo eskakizun akademikoak murriztea eskatzen duen metodo gisa. Horrela, “seriotasunik gabekotzat” daukate eta emaitzak ikusi aurretik bazter utz daitekeela uste dute (Rich, 1990).

Baina ikerketek garbi azaldu dute ez dutela gauzek ezinbestean horrela izan behar, eta metodo hau erabiltzen duten ikastaldeen ohiko metodo lehiakorrez hezitakoek bezain emaitza onak lortzen dituztela, hobeak ez badira ere (Slavin, 1990; 2. kap.; Slavin et al., 1985). Bestalde, ez dira hutsaren hurrengoak elkarlanean oinarritutako sistemak hezkuntzarekiko jarrera eta ikaskideekiko harremanak hobetzean eman ditzakeen etekinak. (Slavin, 1990: 34-53)

Horrelako metodoen aldeko batzuek alderdi batzuk azpimarratzen dituzte eta beste batzuek beste batzuk, baina oinarritzko printzipioak berberak dira guztientzat; ezinbestekoa da ulertzea ez garela hezkuntzako filosofia zehaztugabeko bati buruz ari, aitzitik, urte askoan garatu eta frogatutako metodo baten aurrean gaudela. Era berean, gogoratzekoa da elkarlanezko ikaskuntzak ez duela ikasteko *metodo bakarra* izan nahi. Beste batzuen artean aukeratzen den “xede-egitura” (goal structure) bat da. Johnson eta Johnson-ek diotenez, irakaslearen eginkizun garrantzitsuetako bat egitura indibidualista, lehiakor eta elkarlanezkoetan egokiena aukeratzea da, egoki denean, jakina. (Johnson eta Johnson, 1987:1).

Elkarlanerako taldeak vs talde tradizionalak

Hizkuntz klasearen osagai arrunt bihurtu da azkenaldi honetan lana, era batean edo bestean, taldean egitea. Alabaina, ez dirudi talde horiek “komunikamenaren” bidean ahal duten bezain urruti joaten direnik, nahiz eta horretarako sortuak izan. Horren arrazoia izan daiteke agian taldean aritzeko prozesuak zer-nolakoak diren garbi ez jakitea (ikus Brown, 1988), edo taldean egingo denaren xedea zehazki mugatu gabe edukitzea.

Heterogeneotasuna vs homogeneotasuna

Elkarlanezko ikaskuntzak nahi du ikastaldea ahal den bezain heterogeneoak izan daitezela. Horrela bakarrik izango dira benetan esanguratsuak elkarreraginak. Ikaskuntza metodo horren funtsa da ikaslerik “bizkorrenak” izan daitezela “makalenen” laguntzaile eta taldeen elkarrekin egin dezatela aurrera. Begien bistakoa da talde bat ikaslerik onenek osatzen badute, talde horrek besteei gaina hartuko diela eta, aldi berean, ikasle horiek ez dutela elkarlanaren hainbesteko beharrik izango. Gauza bera esan daiteke ikasle makalek osatzen duten taldeaz ere. Metodo honen eskakizunetan bat ikasleek (ikasten ari diren ezagutzak asko izan ala gutxi) elkarrekin harremanetan ikasi beharra denez, argi dago talde homogeneoek ez dutela inolaz ere ziurtatzen harreman onak lortuko direnik.

Tentu handiz osatzen ditu irakasleak elkarlanean ikasiko duten taldeak; heterogeneotasunaren irizpide ez dira bakarrik aurreko emaitzak, beste alderdi batzuek ere kontuan hartu behar ditu: sexua, hizkuntza, arraza, interesak, etab. Era horretan, elkarlanezko ikaskuntzak, betiko trabak

kendu eta emaitza, akademiko joriagoak eskuratzeaz gain, gizarte-elkarrreragin esanguratsu gehiago ahalbideratu nahi ditu. Aldi baterako taldeak ez bezala, hauek “gizarteko denborapasetarako” baitira egokiak (Brown, 1988:135), elkarlanerako taldeak “lan sozial” bat lortzeko eta eraginkorrakoak izateko prestatzen dira.

*Interdependentzia
positiboa vs
negatiboa*

Betiko ikaskuntza indibidualistan, era berezian agertu ohi da interdependentzia negatiboa ikasleek notak lortu nahi izaten dituzte eta elkarri lagundu ez beste edozer egiteko prestatuak egoten dira. Taldeka aritzeak zuzenduko du beharbada akats hori, baina gehienetan ikasleek ez dute taldean aritu beharrik nabaritzen ere eta, era horretan, interdependentzia negatiboa taldera eramaten da, besterik ez ez dute ezagutza elkarbanatzen, bai baitakite azkenean ebaluazioa bakoitzarena izango dela edo puntuazioa talde osoari emango zaiola. Ez batean eta ez bestean, ez da elkarlana motibatzen.

Talde-nortasunik ezetik datoz akats horiek: ohiko taldeak, jeneralean, banakakoen multzoak besterik ez baitira. Zenbait ikerketak adierazten dutenez, jendea taldetan biltze hutsa ez da eraginkorra interdependentziaren ideia falta baldin bada (Brown, 1988:29). Elkarlanezko ikaskuntza-taldeak azkar ohartzen dira bakoitzaren arrakasta taldearen arrakastan oinarritua dagoela eta banaka edo denek batera elkarri laguntzen diote. Bost axola ikasle bakoitzak zenbat dakien; azkeneko nota, aldez bederen, talde osoaren lorpenen baitan dago. Ikasleak elkarrekin partaide izango direla ziurtatzeko, norbanakoaren erantzukizuna azpimarratzen du elkarlanezko ikaskuntzak ikasleak ez du bere arrakasta besteren lanaren baitan jarri behar, taldekide guztiek behar dute taldearen lanean parte hartu (Slavin, 1990:3), eta mailarik apalenean geratzen den ikaslearen egoera gero aipatuko dugun “puntuazio hobetzearekin” leun daiteke.

*Elkarlanerako
prestakuntza*

Normala da taldeek nola edo hala elkarrekin harremanak izaten badakite-la uste izatca, baina uste hori okerra da. Hizkuntz klasean ondo lan egingo duten taldeak osatzeko, garrantzi berezia dute komunikazioko abildadeek. Elkarlanean aritzeko gauza izateak hizkuntz gaitasun batzuk eskatzen ditu, hala nola eztabaidetan edo erabakiak hartzerakoan besteri parte harraraztekoa. Ez da hori taldeetan askotan gertatzen gehienen ustetan, taldelana beren ideiak azaltzeko aukera bat baita. Baina taldeei erakuts dakieke emaitza hobeak lortzen direla taldekide guztiek parte hartzeko aukera dutenean (sinergia) eta denen erantzukizuna dela kide guztiak beren ideiak adieraztera eta ezagutzak elkarbanatzera bultzatzea.

*Eskuarteko
mugatuak vs
neurrigabeak*

Taldeak, gehienean, elkarren ondoan eseritako gizabanakoak izaten dira ez daude ezertarako elkarren mendeen. Alderantziz gertatuko da elkarlanezko ikaskuntzako taldeetan, elkarrengan konfidantza izaten eta elkarren laguntza bilatzen irakatsiko baitzaie, interdependentzia positiboaz ariki esan dugun bezala.

Eskuarteko baliabideak urritzea da horretarako bide bat. Talde bakoitza-

ri argibide-orri bakarria ematen bazaio adibide bat da, ataza burutzeko behar duten orri hura duenari arreta eskaini beharko diote guztiek. Era berean, lapitz bakarria edo orri bakarria edo liburu edo zinta bakarria eman dakioke talde bakoitzari.

Hau da, eskuartekoak ugaritzeak zenbaitetan ez ditu ikasleak elkarri entzutera eramango nork bere lana egiten du horrelakoetan, ez baitu besteren beharrik.

Taldearen bizitza

Multzo bat benetako lantalde bihurtzeko modurik sinpleen eta eraginkorrena, beharbada, elkarrekin denbora luzean egonaztea izango da. Ekintza solteren bat egiteko ikasle batzuk bildu, gero banandu eta berriaz beste talde batzuetan biltzen ibili ordeaz, irakasleak esan diezaike taldeei denboraldi batean elkarrekin arituko direla bi edo hiru astean, gutxienez, edo hilabete batean, edo baita urte osoan ere. Ikasleek, beraz, badakite ez direla elkarrekin hamabost minutuan bakarrik egongo. Arras aldatzen du horrek konpromezua, eta bestelako jarrera bat sortzen da taldearen barnean. Ikasleen jarrerak eta irakaslearen ebaluazioak markatuko dute neurri handi batean taldearen bizitza.

Elkarlanean ikaskuntzaren aldiak

Behin irakasleak talde heterogeneoak eratu eta ikasleei aldi batean elkarrekin arituko direla esanez gero, talde-nortasuna sortuko duen zerbaitean hasi beharko lukete ikasleek.

Taldearen nortasuna

Normalean izen bat aukeratzen dute beren taldearentzat; armarrak bat ere presta dezakete; hitz-zerrenda bat egitea izan daiteke beste ariketa bat. Eskuarteko mugatuz aritzea (arestian esan den bezala) oso egokia da taldekideak elkarrengana biltzeko. Ekintza horiek guztiek harrotasun-sentimendua ematen diote taldeari eta ikasleek elkarlanaren garrantzia ere nabarituko dute. Taldea lanean jartzeko zer jardun aukeratu ikasleen adinak esango du, eta badu garrantzia lan honek. Talde orok (hasi negozio-gizonek osaturikoetatik eta oinez hasten ari diren umeek osaturikoe-taraino) behar du bere nortasuna nabaritu eta, jakina, baita leialtasun-zentzua izan ere elkarrekin ikasi ahal izateko.

Ikastalde osoaren identitatea

Taldeak beren nortasuna garatu ahalean, ikastalde osoari ere eskaini behar zaio arreta. Elkarlanean ikasteak taldeak elkarrekin lan egitea eskatzen duen arren, taldeen artean lehia ere izan daiteke. Taldeen arteko lehi apur bat mesegarria izan daitekeen bezala, burugabekeria litzateke taldeak taldeekin zeingehiagoka bortitzean jartzea. Taldeak zenbaitetan elkarrekin lehian aritu beharko dute, baina beti errespetu-giroan. Horretarako, ikastalde osoak parte hartzeko ariketak antola daitezke, horrela ikasleek klase bateko atal izateak ematen duen poza nabarituko dute. Bestalde, taldeak ere adre daitezke ikastalde osoak emaitza onak (talde guztien lorpenak bilduta) lor ditzan saia daitezen, eta ez batzuk besteak baino gehiago izaten.

Komunikazio- -abildak

Taldeak beren nortasunaren kontzientzia lortu dutenean, abildak sozialak behar dituzte ikasleek; baita lehen aipatu ditugun komunikazio-abil-

dadeak ere. Ariketa batzuen bitartez ikasiko dute informazioa elkarbanatzen, besteri parte harrarazten, laneko denbora kontrolatzen, lidertasunak banatzen, erabakiak elkarrekin hartzen eta betetzen, parafraseatzen eta beste hainbat trebetasun; horrela eskuratuko dituzte elkarlanik korapilatsuenetan aritzeko balioko dieten gaitasunak.

STAD Edozein ikaskuntza motatan sar daiteke elkarlana, aski da ikasleak edozein ikasgaiaren ondoren bildu eta denen lanak bateratzea. Sistema horri STAD izen zaila eman zaio (Student Team Achievement Divisions) (Slavin, 1990).

Irakasleak gai bat aurkezten du, beti egingo lukeen eran. Gero taldeak bilduko dira eta *kide guztiek* informazioa ulertu dutela ziurtatuko dute. Lanerako fitxaren bat eman dakieke, edo libururen bat eskuratu, edo berek buruan nahiz paperean bildutako oharra konpara ditzakete. Denek gauzak argi dauzkatenean (edo irakasleak denbora aski izan dutela irizten dionean) galdesorta bana emango zaie erantzun diezaioten (une honetan ez da elkarlanik izango) eta, azkenean, *taldearen puntuazioa* aterako da (batuketa edo bataz bestekoaren arabera). Talderik onena edo onenak sarituak izango dira.

Lan egiteko era honek taldekideen elkartasuna ziurtatzen du, dakitena elkartrukatu dutela; ikaslerik azkarrenek, informazio gehiagoren jabe direnek alegia, sufritu egingo baitute makalenen erruz taldearen emaitzak murrizagoak direla ikusita. Ikasle azkarra, esan beharrekoa da, makala baino aurrerago joango da eta baita betiko metodoen ildotik joango litzatekeen baino aurrerago ere, “laguntzaile” izateak benetan laguntzen baitu ikaskuntzan.

Notak hobetzeko sistemak (emaitza absolutuak balioztatzeak ez bezala) karga handia kentzen die gainetik ikasle makalenei, hauek ere, aurrera egitearekin, lagundu egiten baitiote taldeari. Elkarlanean ikaskuntzan, taldeak elkarrekin aritzera eramaten ditu sariaren sistemak, baina sari hori ez da inoiz izango ikasgelan sesioak sortzen dituztenetakoa. Dena den, sari horren ondorio txarrak leun daitezke noizbehinka ikastalde osoarentzako sariak eskainiz, hots, talde guztien artean lortutako emaitzak sarituz.

Puzleak Azken urteotan, asko zabaldu dira hizkuntzen irakaskuntzan “informazio-hutsartea” izeneko ariketak, benetako eta bat-bateko informazioa eskatzen baitute. Puzzle-erako ariketak ere horien antzekoak dira; aldea bakarra da: taldeen artean egiten direla, partaide bakoitzak informazio-zati bat duelarik. Puzlean bezala, informazioa erabat osatzea da helburua, edo, gutxienez, talde bakoitzaren xedeak iristeko behar den neurrian (testen bat gainditu, problemaren bati irtenbide eman, erabaki bat hartu...).

Ekintza hauek guztiek, beraz, ikaskuntzari buruzko irizpide nagusi bat ispatzen dute: ez duela inork guztia jakin beharrik! Taldekideek ere

eman diezagukete informazioa, ezagutzak elkarbana ditzakegu. Eta, zenbat eta eraginkorrago elkarbanatu, emaitza hobeak lortuko ditugu.

Bestalde, dena denen artean banatzeak beste bizikizun bat ematen die ikasleei: irakastekoa. Batzuek besteei irakasten baldin badiete, arreta handiagoz egongo dira gelan, interesa handiagotu egingo da eta poza ere bai. (Ikus Johnson eta Johnson, 1987, ikerketaren analisiari buruz.)

Informazioa era egokian zabaltzen bada, elkarbanatzea, elkarlana, erabakiak hartzen guztiak saiatzea izan daitezke taldearen ezaugarriak beharrezko abildadeak dira horiek lantokirik gehienetan.

Begira dezagun, ordea, xehekiago zein diren puzzleak eskatzen dituen pausoak.

Era honetako ariketetan, informazioa (testu bat, zinta bat edo zenbait datu izan daitezke) ataletan banatzen da. Talde bakoitzak letra bat egotziko dio kide bakoitzari. Ondoren, A letradun ikasle guztiak (edo hiruzpalau, ikasleak asko baldin badira) elkarrekin bilduko dira eta “aditu-taldea” deritzona osatuko dute, egokitu zaien puzzle-zatia aztertzeko. Beste hainbeste egongo dute beste letretako ikasleek ere.

Ikasleei gogorarazi behar zaie oso zehazki aztertu behar dutela beren zatia eta elkarri lagundu behar dietela eskuartearen duten informazioa ulertu eta gogoan hartzen.

Lan hori bukatutakoan, informazioa (testua, zinta, datuak) bildu egingo da eta ikasle bakoitza bere jatorrizko taldera itzuliko da, eta han denen artean puzzlea osatuko dute bakoitzak aurreko fasean bildu duen informazioarekin. Oraingoan edonork har ditzake notak eta oharrak.

Ondoren, galdesortak banatuko zaizkie ikasleei, nori berea, informazio osoari buruz; eta erantzunekin taldearen puntuazioa kalkulatu da (STADen bezala).

Elkarlanerako dituzten abildade guztien beharra izango dute ikasleek ariketa hauek burutzeko, eta jeneralean elkarbanaketa handi bat sortuko da. Oso fruitukorrak dira horrelako ariketak hizkuntz klasean. Izan ere, berrogeita hamarna hitzeko lau parrafok ordu beteko lana eman dezakete. Ikasleak buru-belarri arituko dira beren atazan murgilduta eta irakasleak ez du ia izango ikasleek zenbat benetako hizkuntza erabiltzen eta elkabatatzen duten ikustea beste zereginik.

Taldearen ebaluazioa

Oso egokia da taldeak elkarlaneko une bakoitzean beren eginbideak eta elkarlana ebaluatzerara ohitzea. Minutu bat aski izango dute beren buruak alderdi horietan aztertzeko: nola aritu diren elkarlanean, elkarri entzun ote dioten, hizketarako nola txandatu diren, lana nola antolatu duten... Taldeei asko lagunduko die, beren barne-prozesuak arretaz aztertzeak beren alderdi ahul eta baliotsuetan saiatzera bultzatuko ditu.

Ondorioak

“Erraztaile” hitza asko zabaldu da azkenaldi honetan “irakasle” hitzaren ordain gisa. Ni haruntzago joango nintzateke, “ikasgela” eta “eskola”

era “erraztaile” bezala ikus genitzake, eta bete-betea gainera, ikastea errazten duten lekuak, alegia. Eta irakaslea gero eta gehiago materialak prestatzen dituen eta ikasleen ikaskuntza errazten duen pertsona bezala ikusten den eran, ikasleari ikaste aktiboa errazten dion lekua izan daiteke ikastetxea.

Ikasten/irakasten den ingurunea, ikaskuntza/irakaskuntza mezua baldin bada, arreta handiz aztertu behar ditugu ikasteko lekuen banaketa, antolamendua eta gunea, eta ikasgaietako dinamika. Ikaslea arretaren ardatz bihurtu ondoren ikasgai lehiakor hertsitan “irakasten” jarraitzen badugu, denbora neurtuz eta guneak kontrolatuz eta mahai-aulkiak lurrari ondo iltzatuta mantenduz, zer ikasiko dute benetan gure ikasleek?

Honela idatzi dute Johnson eta Johnson-ek:

Eskolak denboraldi luze batean itxaropen faltsuak sortu izan ditu karrera, familia eta komunitateko bizitza izan daitezkeenari buruz. Karrerarik gehienek ez dute esan nahi jendea lerroka eseri eta besteekin ezer komunikatu gabe elkarrekin lehiari arituko denik. Bizitza errealean, talde lana, komunikazioa, koordinazio eraginkorra eta lanaren banaketa dira arlo gehien ezaugarriak. Eskolari iritsi zaio bizitza helduko errealitatea ispilatzen duen ordua. (Johnson, 1987:15)

Elkarlanean ikaskuntzak gomendatzen duen moduak badu ikasgelako edukiek duten mezuz aparte beste bat, agian garrantzi handiagokoa. Ikasleen erantzukizuna hainbat aldetatik sustatzeko modu bat da elkarlanean ikaskuntza, eta era horretan lanean ari direnengan, ikasle zein irakasle, eragin handia du.

Itzultzailea: Boni Urkizu

Bibliografia

Brown, R. 1988. *Group Processes*. Basil Blackwell.

Johnson, D.W. & Johnson, R. 1987. *Learning Together and Alone: Cooperative, Competitive and Individualistic Learning*. Prentice Hall.

Kagan, S. 1989. *Cooperative Learning*. Riverside, Ca., Resources for Teachers.

Rich, Y. 1990. Ideological Impediments to Instructional Innovation: The Case of Cooperative Learning. In *Teaching and Teacher Training* 6/1: 81-91.

Slavin, R. et al. 1985. *Learning to Cooperate, Cooperating to Learn*. Prentice Hall.

Slavin, R. 1990. *Cooperative Learning*. Prentice Hall.